



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

2023KO ORDAINSARI-IGOERA

Pasa den 2022ko abenduaren 24an, BOEn abenduaren 23ko 31/2022 Legea argitaratu da, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Lege horrek III. Tituluko I. Kapituluaren arautzen ditu sektore publikoaren zerbitzura dauden langile-gastuak, eta, zehazki, 19. artikuluan, 2023ko ekitaldirako ordainsarien igoeren mugen gaiari heldu dio, eta honako hau arautu du:

“19. artikulua. Jarduera ekonomikoaren plangintza orokorraren oinarriak eta koordinazioa, sektore publikoaren zerbitzura dauden langileen gastuei dagokienez.

(...) Bi. 1. 2023. urtean, sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsariak ezingo dute ehuneko 2,5eko igoera orokorra izan 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekiko, konparazioaren bi aldietarako homogeneotasunari dagokionez, bai langileen kopuruari dagokionez, bai antzintasunari dagokionez.

2. Halaber, hala badagokio, igoera hauek aplikatuko dira 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokienez, eta bi kasuetan 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izango dituzte ondorioak:

a) Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatuaren (KPIH) bilakaerari lotutako igoera. 2022ko KPIHaren eta 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren batura ehuneko 6tik gorakoa bada, ehuneko 0,5eko gehieneko ordainsari-igoera gehigarria aplikatuko da.

b) Ondorio horietarako, Espainiako Estatistikako Institutuak (INE) 2023ko iraileko KPIH aurreratuaren datuak argitaratu ondoren, gehikuntza horren aplikazioa onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da.

c) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an izan duen bilakaerari lotutako igoera. BPG nominalaren hazkundea Jaurlaritzak Aurrekontuen Lege hau egitearekin batera doan koadro makroekonomikoan kalkulaturakoa bera edo handiagoa bada, ehuneko 0,5eko ordainsari igoera osagarria aplikatuko da.

Horretarako, INEk 2023ko BPGaren aurrerapen datuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministro Kontseiluaren Erabakiaren bidez, eta BOEn argitaratuko da (...).”



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

Hau ikusirik,

Zaldibiako udalbatzak erabakitzen du:

Lehena. Ordainsarien igoera orokorra legez onartutako mugaren arabera onartzea, hau da, ehuneko 2,5 handiagoa izatea 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenen aldean. Igoera orokor hori bi alderdietan berdinak izan behar dira: langileen kopuruari dagokionez eta antzinasunari dagokionez. Igoera 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin izan behar da. Hori guztia 2023ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19-Bi-1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Bigarrena. Toki-korporazioetako kideen soldata mailak ehuneko berean igotzea.

Hirugarrena. Akordioa Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea.

2023ko urtarrilaren 30ean, Zaldibiako Udaleko ohiko osoko bilkuran
aho batez onartua.

EH BILDUko aldeko 5 boto eta EAJ-PNVko aldeko 2 botoekin aho batez onartua